



Alba Macrele enpresak hartzekodunen konkurtso bat aurkeztu du

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 12/06/2024

Enpresak Sondikan eta Miranda de Ebron kokatuta ditu bi lantoki, eta guztira 74 langile kaleratze arriskuan daude.

Alba Macrel enpresaren (Sondika) etorkizuna arriskuan dago, enpresak hartzekodunen konkurtso bat aurkeztu ostean. Eraikuntza sektoreko makinaria egiten du enpresak Sondikan eta Miranda de Ebron kokatuta dituen bi lantokietan, eta guztira 74 langile ditu. 2018an, enpresak 7.000 metro karratuko lursaila erosi zuen. Lursail horrek 1.000 metro karratuko nabea zuen, eta espazio horretan 12 eta 19 lanpostu artean sortuko zituen jarduera bat garatzea planteatzen zen. Hala ere, gaur egun krisi larrian dago. Gertakari hauen harira “azken urteetan zuzendaritzak utzikieriaz” jardun duela salatu du enpresa-batzordeak, egoera hau aspalditik erabakita egongo balitz bezala. Era berean, lanpostuen etorkizuna bermatzea exijitu diote enpresari.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/alba-macrele-enpresak-hartzekodunen-konkurtso